

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2017.03.28**

Tolosako Udaletxean, 2017ko martxoaren 28an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 28 de marzo de 2017, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Beloso  
Patxi Amantegui Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente  
Lore Agirre Zipitria  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Maria Lasa Arruabarrena  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Cristian Fernandez Susin

Idazkaria:  
Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzailea:  
Ainhoa Molinos Zubiaurre

### **Eguneko gaia zerrenda**

### **Orden del día**

1. Ondorengo akta onartzea:  
2017ko martxoaren 7ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

1. Aprobación de la siguiente acta:  
Sesión ordinaria del 7 de marzo de 2017.

- |  |   |
|--|---|
| <p>2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:<br/>2016ko abenduaren 30ekoak (2016/2.391-2016/2.408).<br/>2017ko otsailaren 1etik 28ra (2017/173-2017/347).</p> <p>3. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.</p> <p>4. Euskal Herria plaza, 1-b eraikinean hotel-jatetxe-kafetegi zerbitzuak ezartzeko obra publikoko kontzesio espedienteak: jatetxe-kafetegi zerbitzuari dagokion lotea esleitzea.</p> <p>5. Aralar Parke Naturaleko inguruko mozioa.</p> <p>6. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren kontrako udal adierazpena.</p> <p>7. Sare, euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko sare herritarrak aurkeztutako mozioa.</p> <p>8. Udaberri dantza taldeari eta TEE (Tolosako Ekinbide Etxea) zoriondu, egiten duten lana errekonozitu eta antolatuko dituzten ekitaldi bereziak diruz laguntzeko Eusko Jaurlearitzari eskatzeko mozioa.</p> <p>9. Galderak eta eskaerak</p> | <p>2. Dar cuenta de los siguientes decretos emitidos por la alcaldía:<br/>El 30 de diciembre de 2016 (2016/2.391-2016/2.418).<br/>Del 1 al 28 de febrero de 2017 (2017/173-2017/347).</p> <p>3. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.</p> <p>4. Concesión de obra pública para la implantación de los servicios de restaurante-cafetería-hotel en el edificio 1-b de Euskal Herria plaza: adjudicación del lote correspondiente al servicio de restaurante-cafetería.</p> <p>5. Moción relativa al Parque Natural de Aralar.</p> <p>6. Declaración institucional contra la xenofobia y el racismo.</p> <p>7. Moción presentada por Sare, red ciudadana a favor de los derechos humanos de las personas presas, exiliadas y deportadas vascas.</p> <p>8. Moción de felicitación y reconocimiento del trabajo que realizan Udaberri dantza taldea y el CIT (Centro de Iniciativas y Turismo) y solicitud al Gobierno Vasco de ayudas económicas para actividades extraordinarias.</p> <p>9. Ruegos y preguntas.</p> |
|--|---|

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

**1. Ondorengo akta onartzea:  
2017ko martxoaren 7ko Ohizko Osoko bilkurakoa.**

**1. Aprobación de la siguiente acta:  
Sesión ordinaria del 7 de marzo de 2017.**

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

**2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**

**2016ko abenduaren 30ekoak (2016/2.391-2016/2.408).**

**2017ko otsailaren 1etik 28ra (2017/173-2017/347).**

**2. Dar cuenta de los siguientes decretos emitidos por la alcaldía:**

**El 30 de diciembre de 2016 (2016/2.391-2016/2.418).**

**Del 1 al 28 de febrero de 2017 (2017/173-2017/347).**

Alkatetzak 2016ko abenduaren 30ean (2016/2391-2016/2408) eta 2017ko otsailaren 1etik 28ra bitartean (2017/173-2017/347) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**3. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.**

**3. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.**

... Begoña Tolosa Mendiá, Ogasun batzordeko lehendakaria: aurreko plenoan bezala, ekartzen ditugu 2016ko urteko fakturak pasa izan direnak 2017ko datarekin. Kasu hauetan kontabilitatearen ekitaldia kontutan harturik 2017ko aurrekontuaren kontra joango direnez, faktura hauen onarpena plenoaren eskumena da. Ogasun batzordean aldeko diktamena jaso zuen proposamen honako hau da: 6.029,10 €ko gastua onartzea.

-----

Jarraian, Udalbatzak, aho batez, bere egin du Ogasun Batzordeak 2017ko martxoaren 22an jaulkitako diktamena:

*"Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2017ko ekitaldian jaso dira, baina 2016ko ekitaldiko faktura data dute.*

HARRERA DATA	FTRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FTRA.ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2017-02-22	2016-02-29	0700.623.02.414.00	Prevecilan S.L.	16/646	Segurtasuneko eta osasuneko koordinazioa (urkizu auzoan ur biltegi bat egiteko proiektua)	653,40
2017-02-22	2016-11-09	0700.221.99.162.10	Benito Urban S.L.U.	210456384	Bolsas Toilekan	562,65
2017-02-17	2016-11-14	1100.226.06.431.10	Tolomendi	K-16/16	2016/10/22 erabilitako 12 karpén alokairua	144,00
2017-02-17	2016-12-16	0600.226.03.151.10	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala	201601250/8610	Arrillaga plazako autoentzako aparkalekuen erabilera zesiorako baldintza-agiriaren onarpenaren iragarkia	933,14
2017-02-17	2016-11-10	0600.226.03.151.10	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala	201601136/7729	Kontratuaren formalizazioaren iragarkia	40,74
2017-01-25	2016-08-26	0700.213.01.153.40	Gaurisa Arabauto Cars S.L.	T61161565	Reparación e instalación de elevallas, colocar grapas panel de puerta...	197,06
2017-03-22	2016-12-16	0700.622.02.920.33	Juan Antonio Aranburu Aizpuru	3-FE	Reforma interior y entradas del Ferial en Barrio San Esteban	3.498,11
<b>GUZTIRA</b>						<b>6.029,10</b>

Bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez. 2016ko abenduaren 31an obligazio hauek onartu gabe zeuden eta 2017ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.”

**4. Euskal Herria plaza, 1-b eraikinean hotel-jatetxe-kafetegi zerbitzuak ezartzeko obra publikoko kontzesio espedientea: jatetxe-kafetegi zerbitzuari dagokion lotea esleitzea.**

**4. Concesión de obra publica para la implantación de los servicios de restaurante-cafetería-hotel en el edificio 1-b de Euskal Herria plaza: adjudicación del lote correspondiente al servicio de restaurante-cafetería.**

Partehartzeak:

...Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): “Publikoa dagoenez, uste dut gaia esplikatzea merezi duela. Izan ere, gu denok badakigu zertaz ari garen, hau da, etxebizitzak dotazionalak dauden espazio horretan, lehenago Gerontologikoa zegoen espazioa hartan, behean taberna jarri eta, lehenengo plantan, alberge, hotel edo lotarako leku bat egitea da aurreikusten dena. Proiektu hau zaharra da; baditu urte batzuk; krisialdi garaian ez zegoen inor interesa zuenik eta egia da oraingo honetan lortu dela, lehiaketaren bidez, norbaitek interesa agertzea eta finantzatzeko prest egotea. Hala ere, gaia hau lehengo aldiz plenoan tratatu zenean EHBildutik mahai gainean jarri genuen loteen banaketa ez zitzaigula egokia iruditzen. Hau da, gure ustez, lote bakarrean esleitu behar zen proiektu hau, hau da, jatetxea eta hotela elkarrekin, kudeaketa bateratua bermatzeko eta egiteko. Ez zen horrela egin eta hiru lotetan egitea planteatu zen. Hiru aukera ezberdin: lehengoan, hotela eta jatetxea, guk esan genuen bezala. Bestetik, hori hutsik geldituz gero, hotelaren lotera bakarrik. Eta hotelaren lotea bakarrik norbait aurkeztu ez gero, ikusita hotela ez zela oso gustagarria ekonomikoki, Udalak 300.000 euroz lagunduko zuen. Eta hirugarrenik, eta behin horretan interesatuta inor balego, jatetxea aterako zen esleipenera; jatetxea bakarrik. Eta horretarako dirulaguntzarik ez zen emango. Guk esan bezala, ez zitzaigun prozedura egokia iruditzen eta orain ikusi dugunez gauzak hobeto egitea zegoela iruditzen zaigu. Lotetan banatze horrek ekartzen zigun hotela eta jatetxearen alde eta biak batera hartuta 150.000 euro jasoko zituzkeela udalaren eskutik. Inor ez da aurkeztu horretarako eta bai, aldiz, hotelaren kudeaketara eta jatetxearen kudeaketara. Hau da, bi lehiaketara aurkeztu dira. Ondorioz, pertsona bera aurkeztu da bi lehiaketara eta hotelarengatik, oinarriak horrela diotelako, 300.000 euro jasoko ditu, eta jatetxearengatik eurorik ez. Jatetxea eta hotela pertsona berak kudeatuko ditu eta udalaren eskutik 300.000 euro eskuratuko ditu. Aldiz, lote berean eskuratu izan balitu 150.000 euro eskuratuko lituzke. Ez dakigu lote bakarrekin esleitu balitz pertsona hau edo beste bat aurkeztuko zen, baina ikusten duguna da, momentu honetan, biak pertsona berak emanda 150.000 euro ez, baizik 300.000 euro emango lituzkeela. Berriro diot, ez dakigu pertsona hau edo beste bat lote bakarrera aurkeztuko litzatekeen, dakiguna da pertsona berak kudeatuko dituela bi espazioak eta 150.000 euro baino 300.000 euro jasoko dituela: hau da, Udalak 150.000 euro galdu edo ez dituela bere nahierara behintzat erabili. Orduan, guk alde bozkatuko dugu, baina berriz ere,

*lehenengo aldiz ekarri zenean, mahai gainean jarri genuen bezala lote bakarraren esleipena, momentu honetan ere mahai gainean jartzen dugu berriz ere, ez zaigula egokia iruditzen hiru loteen esleipena batean egitea. Ez da horrela egin, eta esan bezala pertsona horrek 300.000 euro jasoko ditu eta bestela, agian, 150.000 euro soilik eskuratuko lituzke.”*

...Alkatea: *“Euskal Herria plazako alojamendua, kafetegia eta jatetxearen proposamena hiru lote ezberdinetan egitearen arrazoi bakarra izan zen udaletxe honek lehenetsi nahi izan zuela alojamenduaren esleipena lortzea. Proiektu osoaren helburua zen Tolosak duen alojamendu gabezi hori estaltzea. Beraz, hiru lotetan ateratzeko arrazoi bakarra zen alojamenduaren lotea lehenestea. Aipatu den bezala, lizitatzailerak bakarra izan da, ez dira egon proposamen ugariak hemen aukeratuak ahal izateko. Lizitatzailerak bakarra izan da, baldintzak bete ditu eta, beraz, gaur posible izango da, aipatu den bezala. Gainera, ez da proposamen berria, zaharra da, baina gaur aukera izango dugu esleipen hori gauzatu ahal izateko, eta hori horrela egin delako. Helburuak, esan dut, alojamendu gabezia estaltzea zela, Turismoko plan estrategikoan agertzen zen bezala, eta hori inportantea zelako herrian sortzen diren jarduera ezberdinei etekin soziala handiagoa ateratzeko. Horregatik, nola ez, proposamenaren alde egingo dugu.”*

-----

Tolosako Udalbatzak, 2016ko uztailaren 27an egindako bilkuran, hasierako paragrafoan zehaztu den kontratazio espedientea onartu zuen.

Izapideak egin ondoren, lizitazioa EBAOn, GAOOn eta Kontratatzailearen profilean argitaratu zen, interesatuek proposamenak aurkez zitzaten.

Lizitazio epean, jatetxe-kafetegiaren lotean, lizitatzailerak bakarra aurkeztu zen:

- Luis Enrique Niño Redondo.

2017ko otsailaren 23an, Kontratazio Mahaiak, txosten teknikoen arabera, lizitatzailerak bakar horren aldeko kontratazio-proposamena egin zuen.

Horretan guztian oinarrituta, otsailaren 24ko 2017/0346 Dekretuaren bidez, Luis Enrique Niño Redondori errekeritu zitzaion aurkezteko behin betiko fidantza egiaztatzen zuen agiria eta enpresaren eratze-eskritura.

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el día 27 de julio de 2016, aprobó el expediente de contratación indicado más arriba.

Tramitado el correspondiente expediente, se publicó la licitación en el DOUE, en el BOG y en el perfil de contratante, a fin de que los interesados presentaran sus propuestas.

Durante la licitación se ha presentado una única licitación al lote de restaurante-cafetería:

- Luis Enrique Niño Redondo.

Con fecha 23 febrero de 2017, la Mesa de Contratación, de conformidad con los informes técnicos emitidos, realiza propuesta de adjudicación a favor de la única licitadora presentada.

En base a ello, mediante Decreto de 2017/0346, de 24 de febrero, se requiere a D. Luis Enrique Niño Redondo que presente la documentación justificativa de haber constituido la garantía definitiva y la escritura de constitución de la empresa.

2017ko martxoaren 14an aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioa.

Tolosako Euskal Herria plazako 1-B eraikinean egokitzekoa den kafetegi-jatetxe zerbitzuaren lotea esleitzeko oinarri espezifikokoetako 5. artikuluan, "Emakidadunak ordaindu beharreko kanona" izenekoak, honela xedatzen du bigarren paragrafoan: "obrak bukatu eta hotel zerbitzua martxan jarri ondoren hasiko da ordaintzen kanona, eta, kasu guztietan, kontratua sinatu eta 18 hilabeteren buruan"

Argi ikusten da paragrafo honen erredakzioan erru material bat gertatu dela, izan ere, kafetegi-jatetxe zerbitzuaren lotea arautzen dutenez, "hotel" dioen tokian "jatetxe-kafetegi" esan behar luke.

Horren guztiaren aurrean, kontuan harturik azalpen honetan azaldutakoa, eta Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bategineko 151.4 artikuluan xedatutakoaren arabera eta 2017ko martxoaren 22ko Hiriginza eta Azpiegituretako batzordearen diktamena, Udalbatzak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehena.-** Zuzentzea 5. artikuluan, "Emakidadunak ordaindu beharreko kanona" izenekoan, bigarren paragrafoan atzemandako errore materiala, eta ondoren zehazten den moduan idatzita uztea:

"Obrak bukatu eta jatetxe-kafetegi zerbitzua martxan jarri ondoren hasiko da ordaintzen kanona, eta, kasu guztietan, kontratua sinatu eta 18 hilabeteren buruan."

**Bigarrena.-**Lizitazio-egintza baliozkotzat

Con fecha 14 de marzo de 2017 presenta la documentación referida.

Las bases específicas para la adjudicación del lote del servicio de cafetería-restaurante a habilitar en el edificio de Plaza Euskal Herria 1-B, establecen en el párrafo segundo del artículo "Canon a satisfacer por el concesionario" que el canon se comenzará a abonar una vez finalizadas las obras y puesto en marcha el servicio de hotel y, en todo caso, una vez pasados 18 meses desde la firma del contrato.

Existe, a todas luces, un error material en la redacción de este párrafo, ya que tratándose como se trata de las bases que regulan el lote de cafetería-restaurante, donde dice "hotel" debería decir "restaurante-cafetería".

Ante todo lo expuesto, y teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, y de conformidad al artículo 151.4 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, así como el dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo e Infraestructuras de 22 de marzo de 2017, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad,

## ACUERDA

**Primero.-**Subsanar el error material detectado en el párrafo segundo del Artículo 5 del pliego -"Canon a satisfacer por el concesionario"- que quedará redactado en los siguientes términos:

"El canon se comenzará a abonar una vez finalizadas las obras y puesto en marcha el servicio de restaurante-cafetería y, en todo caso, una vez pasados 18 meses desde la firma del contrato."

jotzea eta BIDEBIDE TOLOSA SL enpresari adjudikatzea Euskal Herria plazako 1-B eraikinean egokitu behar den jatetxe-kafetegi zerbitzuari dagokion lotea, hurrengo era honetan:

- Kontzesio epea: 30 urte.
- Kanona: kanona, urtean, 34.000,00 eurokoa izango da, gehi dagokion BEZa.

Obrak bukatu eta jatetxe-kafetegi zerbitzua martxan jarri ondoren hasiko da ordaintzen kanona, eta, kasu guztietan, kontratua sinatu eta 18 hilabeteren buruan.

Aurreneko hiru urteetan, esleipendunak kanonaren laurden bat ordaindu beharko du, hau da, 8.500,00 euro. Laugarren urtean, kanon osoa ordaindu beharko du eta, laugarrenetik aurrera, kanon horri % 1eko portzentajea gehituko zaio aurreko urtekoarekiko.

Urteko kanona hamabi hileko kuotatan ordaindu beharko da, hilabete bakoitzeko 5. eguna baino lehen.

**Hirugarrena.**-Kontratua formalizatzeko hamabost egun balioduneko epea jartzea, adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

**Laugarrena.**-Kontratuaren formalizazioa Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea berrogeita zortzi eguneko epearen barruan, adjudikatzen denetik kontatzen hasita.

**Bosgarrena.**-Interesatuari adjudikazioa jakinaraztea.

**Segundo.**-Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a la empresa BIDEBIDE TOLOSA, S.L., el contrato de adjudicación del lote del servicio de restaurante-cafetería a habilitar en Euskal Herria plaza 1-B, en los siguientes términos:

- Plazo de concesión: 30 años.
- Canon: El canon será de 34.000,00 euros anuales más el IVA correspondiente.

El canon se comenzará a abonar una vez finalizadas las obras y puesto en marcha el servicio de restaurante-cafetería y, en todo caso, una vez pasados 18 meses desde la firma del contrato.

En los tres primeros años el adjudicatario deberá abonar la cuarta parte del canon, esto es, la cantidad de 8.500,00 euros. El cuarto año abonará la totalidad del canon, y partir de ese año el canon se incrementará en un porcentaje del 1% respecto del año anterior.

El importe del canon anual se abonará en doce cuotas mensuales pagaderas antes del día 5 de cada mes.

**Tercero.**-Establecer que el contrato se formalizará dentro de los 15 días hábiles desde la notificación de la adjudicación.

**Cuarto.**-Publicar la formalización del contrato en el Diario Oficial de la Unidad Europea, en el Boletín oficial de Gipuzkoa, y en el perfil del contratante, dentro del plazo de cuarenta y ocho días, contados desde la fecha de la adjudicación.

**Quinto.**-Notificar esta resolución a la parte interesada.

5. Aralar Parke Naturaleko inguruko mozioa.

5. Moción relativa al Parque Natural de Aralar.



Partehartzeak:

... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Bi testuak irakurri ondoren EAJk aurkeztutakoarekin bat egingo dut. Gainera testu hau Batzar Nagusietan adostu egin zen, EAJ, PSE eta PPko aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin.”*

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Arratsaldeon. Gure aldetik, aurrekoan gai hau sartu zenean eta, Olatz, ostiralean zurekin hitz egin nuenean, negoziatzeko aukerak zabalik utzi zenizkigun eta hitz horiek pozarren hartu nituen, pentsatuz, aukera egongo zela denon artean, ez soilik gure artean, baita sektoreko eta mozioa sartu duten gainerako eragileekin batera zerbait adosteko. Gai honek gatazka sortu du, baita zenbait herri txikitan bizikidetza hautsi ere: koadriletan, familian bertan eta herrian ezin ikusiak. Zaldibian bertan txabola bati su eman zaio. Orduan, lehenengo gauza, erantzunkizuna duen horrek, kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardura politikoa dutenek, EAJ eta PSE-EEK osatzen duzuen gobernuak, bizikidetza hori mantentzeko, kudeatzeko ezinbesteko erantzunkizuna duzue. Bete ez dena eta betetzen ari ez dena. Ondorioak ikustea besterik ez dago. Horrek gu kezkatzen gaitu eta gehiago kezkatzen gaitu, gainera, esan zenigunean, adostasunerako bidea egon zitekeela eta ikusi dugunean bide hori bidezidor bat ere ez dela. Ez dela ezer. Eta kezkatzen gaitu horrek, izan ere, ikusten dugu bizikidetza hori berreskuratzearen alde gauza gutxi egiteko prest zaudetela, izan ere, lehenik eta behin, pistak eztabaidatik at gelditzen dira, zuek aurkezten duzuen mozioaren erroa eta oinarria hori baita. Ni horrek harritu nau eta goizean telefonoz ere esan dizut: eztabaidatzeko margerik ez dago. Aralar Bizirik plataformaren eskutik sartutako mozio, EH Bildutik ere planteatzen genuen, izan ere, pistak bai edo ez baino eztabaida askoz sakonagoa da. Zenbaitzuk eztabaida horra eraman nahi izan dute, hau da, pistaren alde daudenak artzaintzaren alde daude, eta pistaren aurka daudenak ekologistak dira. Ez. Eztabaida askoz sakonagoa da, eta horretan gelditzen denak interes berezia du gatazka elikatzeko eta bi fronte sortzeko.*

*Gu eztabaida hori ematearen alde gaude, hau da, sakoneko arrazoiak zeintzuk diren ikustearen alde gaude, Aralar guztion espazioa delako, Aralar guztiona delako: artzaiena, bertan bizi direnena, bertan ibiltzen direnena. Espazio publikoa da, ondare publikoa da, ondare paisajistikoa da, ondare sinboliko bat da eta ondare hori guztion ardura da zaintzea. Bertan, artzantza oso zati inportantea da, baina ez bakarra. Guztiok gaude, noski, artzantzen eta sektorearen duintasunaren alde, nola ez. Lehenengo sektorea herri honetan ez da sektore ekonomiko bat bakarrik, sektore hori gure izate eta gure izaera kultural, hizkuntzaren defentsa eta gure euskaldunon oinarri sinboliko guzti hori, baserriak mantendu ditu mendeetan eta mendeetan. Nola ez gara egongo horren alde? Baina horren alde egoteak ez du esan nahi pistak egon behar dutenik edo ez dutenik egon behar, baina azterketa bat egin behar da, eta gai honetan: a) Bizikidetza hautsi da gauzak korrika eta gaizki egin direlako eta agian zenbaiti interesatzen zitzairen bizikidetza hori haustea proiektua zatituta aurrera eramateko; b) eta bestetik, ez dago inongo azterketarik, ez dago inongo analisi sakonik, Aralar parke natural gisan, eta babes eremu gisan, aurrez aipatutako izaera guzti horiek kontuan hartuko dituenik. Ez dago inongo azterketarik, ez da egin. Beraz, planteatzea pistak direla artzantzen etorkizuna bermatzeko forma bakarra, hori da ilargiari seinalatzen dion behatzari ikustea bezala, ilargia ikusi baino. Hortan gelditzen bada gure hausnarketa, artzantzenak egin du, izan ere, ez bagara haratago ikusteko gai, gureak egin du eta, sektoreak egin du eta, sektoreak egiten duen neurrian, gureak egin du. Izan ere, ondare inmaterial hori euskaldun guztiona ere bada.*

*Beraz, artzantza sustatu nahi dugu, noski, baina baita bizikidetzea ere. Aralar bere izate osoan jarraitzea nahi dugu. Horretarako parke natural izendatu zen eta babes bereziko eremu izatea sustatu zen eta da Aralarko parke naturala. Horregatik planteatzen genuen lehenengo puntua, pistak etetearen ingurukoa, edo gehiago ez egitearen lekuan, adostasuna bilatzea helburu, ikerketa serio eta tekniko bat egitea, ikuspegi politikoa, hau da, ikuspegi ezberdinak*

*izango dituen ikerketa bat egitea eta bitartean pistak eraikitzen ez jarraitzea. Izan ere, eraikitzen den metro bakoitza atzerazina da. Planteamendu hori eta arlo teknikoari bide emanaz, behar, ikuspegi eta interes ezberdinak amankomunean jarri eta orduan erabakiak hartzea planteatzen dugu EH Bildutik. Baina hemen aukerarik ez da egon, izan ere, pisten eztabaida mugiezina da. Hau da, hori dago eta hortik aurrera hitz egin daiteke. Ez diguzue aukerarik eman ezer negoziatzeko eta jarrera horrek ez du laguntzen zubiak eraikitzen.*

*Beraz, berriz diot: hautsitako bizikidetzaren berreskuratzearen alde gaude, teknikoki azterketa sakon bat egitearen alde gaude eta horren arabera irtenbide integralak bilatzearen alde gaude, artzantzari erantzungo diotenak, baina baita guztiona den Aralarko parke natural horri erantzungo diotenak ere. Beraz, ulertzen dut zuen mozioa bozkatuko dela lehenik eta ondorioz, bigarren mozioa, hau da, Aralar bizirik plataformak sartutakoa ez da bozkatuz iritsiko. Baina behintzat, eskatu nahiko genuke, hirugarren puntuari jartzen duen bezala, Tolosako Udalak patronatua daukan ordezkari horrek hartuko duen iritzia gainera eztabaida hemen bertan ematea, izan ere, bestela, mugatzen ari gara gutxi batzuk beraien interesen arabera, erabakia hartu eta eztabaida saihestea. Orduan, zuen mozioa bozkatuko da, zuen mozioa eramango da aurrera, baina gu horren aurka agertuko gara, batez ere, ez diguzuelako aukerarik eman ezer negoziatzeko, ezta bide zidor txikiena ere, baina, behintzat, etorkizunean partzuergoak honen gainean hitz egin behar duenean, Tolosako Plenoan gai hau berriro ere jorratu dadila nahi dugu. Eskerrik asko”.*

- ... Alkatea: *“Nik uste dut, eztabaidagai direla pistak. Beste zerbait ere egon liteke, baina mozioan agertzen dira pistak, eta nire ustez, hori da eztabaidaren muina. Aipamena egin duzunez, zurekin hitz egin nuenean, eta gaur goizean hitz egin dudanean telefonoz eta baita gaur arratsaldean ere, proposatu nizun, banekiela Batzar Nagusietan hizketan ari zirela, eta adostasunak bilatze aldera, ez ote zen egokiagoa eztabaida denboran atzeratzea, modu honetan, adostasun horretara iritsiko balira, gaia adostasunarekin ekartzeko. Hori zen proposamena eta hori komentatu nizun, deitu nizunean aurreko astean, hitz egin dudanean gaur goizean eta baita gaur arratsaldean ere. Plataformari proposamen hau proposatu ahal izateko, ulertzen nuen, adostasunez proposatu behar genuela, baina ez gara puntu horretara iritsi.*

*Ezer esan baino lehen, adierazi nahi dut, gai honen erabaki-esparrua ez dagokiola Tolosako Udalari, baizik Enerio Aralar mankomunitateari, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, eta Enerio Aralar mankomunitateak, jada, iritzi bat eman du.*

*Egia da Tolosako Udala ez dagoela Mankomunitatean baina ordezkari bat du patronatuan, izan ere, Tolosak Aralarren sarbidea dauka Bedaio aldetik, Balerdi mendi magaletik barrena. Era berean, egia da, herritar batek, plataforma baten izenean, kezka bat plazaratu duela idatziz, eta egokia iruditu zaigu osoko bilkura honetako gai zerrendan sartzea, bakoitzak bere iritziak emateko. Uste dut, aurkeztutako mozioko 3. puntuan, Udalbatzan eztabaidatutakoa patronatura ematea proposatzen dela.*

*Egia da eta mozioan azaltzen da, legealdi honetan patronatuan ez dela bilerarik izan, baina galdetu dut eta esan didate hemendik gutxira izango dela bilera. Beraz, proposatzen dudana da gaur hemen azaltzen diren iritzi guztiak, ez soilik onartutakoak, patronatura eramatea.*

*Gaiari helduta, ukalezina da gizakiak naturan eragin bat egiten duela, animalian etxekotzetik hasita, zer esanik ez industrializazioaren garaian. Dena delakoaren garapenak orekatu izan behar du bai ekonomikoki, bai sozialki eta, nola ez, ingurugiro aldetik, eta hor dago gakoa. Aralar, hein handi batean, eta eztabaida hau azaleratu denean askotan aipatu gisan, baita komunikabideetan ere, ganaduzaleen eta artzainen emaitza da, eta artzainen lanik gabe orain ikusgai ditugun larreak galdu egingo liriteke. Egia da, era berean, 1994. urtetik Aralar parke natural izendatu zela eta izaera juridiko horrek badituela baldintza zehatzak eta ezinbestean zaindu beharrekoak. Gainera, Natura 2000 sarean egoteko baldintzak ere bete behar ditu Aralarko parke naturalak.*

*Gaur guk ekarri dugun mozio hau, Cristianek aipatu bezala, Batzar Nagusietan aurkeztutakoa da, ENE eta ENA sindikatuen bitartez eta, nik dakidanez, iritzi hau izan da kontrako bozkarik izan ez duena. Horregatik, adostasun zabalena izan duen testua ekarri nahi izan dugu.*

*Nire ustetan, pisten kontua gehiago da eztabaida tekniko bat, ingurugiro aldetik jakitun diren teknikariek eztabaidatu beharrekoa, eztabaida politiko bat baino. Nik ezin ditut gai teknikoak hemen aurkeztu, baina uste dut, oinarrian, badagoela beste kontu bat, arduratzen nauena eta haserre asko azalaratzen dituena, eta da, benetan sinesten ote dugun lehen sektorea gure herrian sektore estrategikoa den, eta gure garapen ekonomiko eta sozialean benetan indarra duen sektorea den, edo paisiaren zati bat den edo folklorikoa den edo benetan pentsatzen dugun lehen sektoreak guri onura ekologikoa eta biodibertsitaterako onurak ekartzen dizkigun; beste sektoreen garrantzia berekoa den, edo bigarren mailako sektore bat den.*

*Egia da sektoreak badituela bere zailtasunak eta horietako bat belaunaldi aldaketa da, baina zailtasun horiek ez dagozkio soilik sektore honi, bestelakoetan ere badaude, merkataritza kasu. Azken honetan, belaunaldi aldaketari laguntzeko diru-laguntzak ematen dira. Adibide gisa Tolosako Azoka jarri dezakegu. Hor badago EHUK egin zuen azterketa bat, ez bakarrik Tolosako Azokan, baizik orokorrean, azoka guztietan, baina Tolosak emaitza oso inportateak eman zituen. Han aipatzen zen, azoka bera bazela sozializazio gune garrantzitsu bat. Hori adierazle bat da, herriaren elkargune bat baita, baina hori ez da azokaren helburua. Azokaren helburua gure baserriarrek ekoizitakoa merkaturatzea da, eta hori ikusten ez duenak, ez du sektorean sinesten.*

*Artzainek euren jarduna egoki eta duin egin behar dute eta pistak egiteko proiektuak bere txosten arkeologiko eta medioambientalak behar ditu. Ez dira txostenik gabe egiten. Hemen mahaigaineratzen den kontua ez da kontu berri bat, orain 15-20 urte aurkeztutako behar bati erantzuten dio.*

*Nik uste dut Aralarko erabiltzaileen artean, badaudela bi talde oso bereiztuak: batetik, bertatik bizi direnak, egunerokotasunean ibiltzen direnak eta bigarrenik, Aralarrez gozatzen dugunak, eta harreman ezberdin horietan sentimendu eta emozio ezberdinak daude. Horiek bateratzean lortuko da lehen aipatzen genuen oreka hori. Aralarko naturgunea babestearekin, koherentzian dauden proiektuak onartzearekin bat egingo dugu seguraski bi talde ezberdin horiek.*

*Txabolak larre-tokian daude eredu konkretu bati erantzuten diotelako eta eredu hori mantentzea da gure ustetan ezagutzen dugun Aralar hori mantentzeko modurik ez dakit errazena, baina bai egokiena”.*

Jarraian, Alkateak herritarrei hitza eman die.

...Aralar Bizirik plataformako ordezkaria: “Hasteko esan, sekulako faena egin didazuela, izan ere, asmo didaktikoarekin nentorren hona, dena txukun-txukun antolatuta, eta, orain, zuen mozioa eta eman dituzuen arrazoiak ikusita, ea gai naizen horiei guztiei era egokian erantzuteko.

*Hasteko, nik uste dut mozioan planteatu duzuen egoera txuri eta beltzen artekoa dela: gu ez gara ekologista erradikalak. Arrazoi duzu, esaten duzunean, egungo Aralarrek duen itxura, hein handi batean, artzainei eta artzaintzari esker dela. Argi dago: garai batean baso gehiago zegoen, eta, mankomunitatea sortu zenean, zenbait udaletxek erabaki zuten bere zatiko zuhaitzak moztea, larreak sortu ziren, artzaintza etorri zen eta itxura aldatu zen, orain ez asko. Baina nire ustez, horrek ez dauka horrenbesteko garrantzirik.*

*Niri pertsonalki gustatzen zait Aralar nolakoa den, gustatuko litzaidake Aralar horrela*

*mantentzea eta iruditzen zait artzaintza bertan mantendu behar dela. Beste kontu bat da, artzaintzak nolakoa izan behar duen: goi-mendiaz ari gara, mendiko artzaintzaz, eta aipatzen dituzuen pistak egiten baditugu, mendiko edo artzaintza tradizional hori desitxuratu egingo da eta beste zerbait bihurtuko da. Nik uste dut, Aralar parke natural bat dela, ez abeltegi bat.*

*Bigarren puntua aipatu duzue: batetik, animaliak egotea noski, larreentzat ona da, eta hori ez dugu ukatzen. Gure planteamendua ez da artzaintza kentzea, guztia baso bihurtuz, eta duela 200 urteko Aralar mantentzea. Ez. Guk ere oreka mantendu nahi dugu.*

*Aipatu duzu, gainera, gai hau duela 14 urte azaleratu zela. Garia hartako mankomunitateko lehendakariak, Alejandra Iturriotz-ek, EAJ-akoak, artikulu bat idatzi zuen prentsan. Tituluak honela dio: Aralar no es solo de ellos. Halaxe zion pasarte batek: "Seguiremos fomentando la ganadería y enseñando a la sociedad la importancia que tiene esto para el monte, pero sin salir nunca de la línea que creamos que es la mejor para Aralar. Los ganaderos también pueden acompañarnos en esta labor pero nunca los que sin querer someterse a las reglas establecidas quieran actuar como si el monte fuera únicamente de ellos. "*

*Eta nik egiten dudan hausnarketa hurrengo da: garai hartan zegoen araudia ez da ezertan aldatu eta hau egun onartu den eskakizunaren erantzuna izan da. Orduan ezezko borobila eman zitzaion hemen, parlamentuan eta toki guztietan. Araudia ez bada aldatu eta, ondorioz, orain onartutako proiektuan, garai hartako lehendakariak aipatzen zituen arauak ez dira errespetatu.*

*Guk salaketa bat jarri dugu fiskaltzaren aurrean, iruditu baitzaigu legea urratu dela. Proiektuan jaso diren pista gehienak eremu-babestuan daude kokatuta, eta, arautegiari jarraiki, eremu-babestuak soilik biziberritzeko ukitu daitezke, ez pistak egiteko eta horrek dakartzan ondorio kaltegarri guztietarako.*

*Beraz, nik ez dakit zer gertatu den, bat-batean 14 urtetan, horrelako aldaketa egiteko. Ez nahiz sartuko prozesuan, baina nik uste dut, publikitate gutxiarekin eta modu ilun xamarrean joan dela. Gainera, beti legearen mugak bilatuz. Adibide argiena: proiektua osotasunean aurkeztu izan balitz, hau da, 15 km-tako pista gisa, inpaktu azterketa oso handia izango zen eta hori ekiditeko tranpa txiki bat egin da, izan ere, zatika aurkeztu da, eta, modu honetan, inpaktu azterketa sakon hori egin beharrean, inpaktu azterketa sinplea egin da, eta azken hau tramiere huts bat da. Dena den, nik uste dut, ni ez naizela inor hori erabakitzeke, beraz Fiskaltzari dagokio baina iruditzen zait gauzak ez direla bide egokirik egin.*

*Aurrez esan dut asmo didaktikoarekin etorri naizela, izan ere, ez dakit zuetako askok Aralar bertatik bertara ezagutzen dituzuen, pentsatzen dut askok baietz, baina beste batzuk ez eta, era berean, esango nuke, gai hau ere ez duzuela bertatik bertara ezagutzen. Beraz, ea gai naizen aipatu dituzuen zenbait gairen inguruko beste ikuspegi bat transmititu eta zeuoi ikustarazteko. Badakidanez nola ganaduzale guztiak ez dauden pisten alde, pentsatzen dut, EAJn ere guztiok ez zaretela pistak eraikitzearen alde egongo. Beraz, aipatuko ditudan gauzekin, beste ikuspegi bat eman eta eztabaida behar den tokian kokatzen saiatuko naiz.*

*Lehen aipatu bezala, eta ni Olatz zurekin erabat ados nago teknikoaren eztabaida bat izan beharko lukeela esaten duzunean, baina teknikoaren eztabaidarik ez da egon eta hori da arazorik larrienetakoa. Niri iruditzen zait, azterketa horretatik, batetik, honako galderei erantzuna eman beharko litzaiekeela. Nik orain, galdera horiei erantzuna emango diet, erabiliko ditudan datuak, agian, okerrak dira, baina nik dauzkadan datuekin, azterketa horren beharra azpimarratu nahiko nuke. Ez nahiz datuen egokitasunaren inguruko eztabaidan sartuko, izan ere, iruditzen zait ez dela hain garrantzitsua. Iruditzen zait galdera horiei*

*benetako erantzuna bilatu behar zaiela eta nik dauzkadan datuak emango dizkizuet.*

*Alde batetik, zenbat behor, behi eta ardi daude Aralarren? Nik ditudan datuen arabera, 33.000 buru daude. Ez daukat animalia-banaketaren inguruko daturik, ez baita berdina ardi batek sortzen duen higadura eta behi edo behor batek sortzen duena. Azken hauek askozaz pisu gehiago dute, ardiek halako bost, eta, beraz, higadura handiagoa sortzen dute.*

*Eta beste galdera da, honekin lotuta: larreek zenbat animalia jasan ditzakete? Larreen Ordenantzak Aralarko larreentzat 24.000 abelburu aurreikusten ditu. Horrek zer esan nahi du? Bada, une honetan, animalien presioa gehiegizkoa dela Aralarko larreentzako eta hori begi bistako da: duela 20 urteko Aralarko zenbait muinetako argazkiak egungoekin alderatuz gero, argi eta garbi ikusten da, lehen larreak zeuden tokian, orain harria besterik ez dagoela. Gainera, zenbait tokitan larreen higadura eta galera handia da. Hori begi bistakoa izateaz gain, berau berresten duten ikerketak daude.*

*Nolakoa da Aralarko ekosistema ezberdinen osasuna, hau da, larreen, basoen edota akuiferoen osasuna? Kobazuloak ez ditut aipatu, izan ere, 300 kobazulo baino gehiago daude katalogatuta eta bertan dagoen animalia berezien kopurua ikaragarria da. Nik hortaz ez dakit ezer, soilik irakurri dudana, eta aintzat hartzeko beste puntu bat izan daiteke.*

*Larre eta basoei dagokienean beraz, zenbait tokitan gehiegizko higadura dagoenez, irtenbide bakarra hauxe litzateke: itxitura egin eta zuhaitzak landatzea. Zenbait tokitan, nik uste, premiazkoa dela hori egitea, izan ere, egin ezean, larrerik gabe geldituko gara, izan ere, momentu hauetan, larrea joaten ari da. Egindako azterketek diote, Aralarko ekosistema ezberdinen osasuna hobetzeko basoak toki gehiago beharko lukeela. Hori da hortaz dakitenek esaten dutena.*

*Aipatzen da, lehen sektorea sektore estrategiko gisa. Zalantza daukat Aralarko artzaintza lehenengo sektorea ote den. Eta azpimarratu nahi dut artzaintzaz ari naizela, ez ganaduzaleez. Nire ustez, gehiago du balio kulturaletik, edo folklorikotik nahi baduzu, etnografikotik esango nuke nik.*

*Eta zergatik diot hau? Lehenengo zenbait datu emango dizkizuet eta gero berriro ere bueltatuko naiz honetara.*

*Adibidez, zenbat artzain eta ganaduzale daude Aralarren? Eta horietatik zenbat dira profesionalak? Nik ditudan datuen arabera, guztira, 120 abeltzain daude eta horietatik 50 baino gutxiago dira profesionalak eta horietatik 35 dira artzainak, hau da, borden erabiltzaileak. Gainerako guztiak, gainontzeko 70ak, kapritxoak, euren animaliak bertan dauzkatenak dira. Kapritxoak, subentzioak jasoz eta beste leku batzuetan lana eginaz.*

*Zenbat borda daude eta non gelditzen zaizkie? Nik uste dut hau arazoaren tamaina zenbatekoa den zehazteko oso gai garrantzitsua dela, izan ere, gaia ezagutzen ez denean, badirudi, artzain guztiak Zaldibiatik bertatik edo Amezketatik edo Ataundik oinez ateratzen direla, sekulako kargak hartuta edo mandoarekin. Momentu honetan, eta jada badira urteak, Aralarko toki ezberdinetara, adibidez, Amezketatik ia 1.000 metroraino iristen da pista bat; Ataundik 900m-taraino eta orain Gorostintxun egin duten pista 950m-taraino iristen da. Beraz, oso altu iristen da pista. Zaldibiatik ere oso altu iristen da pista eta Nafarroatik zer esanik ez.*

*Honekin lotuta, esan behar da, Aralarren 40 borda daudela -datuak gutxi gora beherakoak dira eta horregatik azpimarratzen dut azterketaren beharra- eta horietatik 22 bordetara pista iristen dira. 40 horietatik 5 hutsik daude eta hutsik dauden horietako batzuk pistetatik gertu daude. Hau da, euren bordetaraino pistarik ez duten artzainen kopurua 14-15ekoa da, eta nik*

*uste dut, irudimena erabilia, gauzak asmatu daitezkeela. Adibidez, bordak beherago ekarrita edota bestelako erantzunak emanda, ez dakit, hori adituek aztertu beharreko lana da. Baina nik uste dut, hau dena, ezer egiten hasi aurretik egin beharrekoa zela.*

*Orain, berriro ere, lehen esaten zenuten artzain eta aktibitate ekonomikoaren gaiari helduko diot. Nire ustez, lehen sektoreari eman behar zaion laguntza argudio gisa erabiltzea, ez da guztiz erreala. Izan ere, zenbat diru inbertitzen du administrazioak Aralarren, zuzeneko diru-laguntzak emanaz, abeltzainei abelburuengatik edota azpiegiturak mantendu eta hobetzeko? Ez daukat daturik, baina ez da gutxi. Zenbait abeltzainek 50.000 eurotik gorako diru-laguntzak dituzte urtean. Baina hemen ere datu publikoen beharra dago, eta aztertu beharreko gaiak dira. Egin diren borda guztietan ura daukate, plaka solarrak daude, oso txukun daude, eta hori guztia diru publikoarekin egin da.*

*Pisten proiektuak bi milioi euroko aurrekontua du, diru asko dela iruditzen zait eta, agian, lehen sektoreak badu pistak egitea baino premia biziagorik. Hori soilik nire iritzia da.*

*Eta gizarteak zer jasotzen du trukean? Batetik, Aralarko larreak garbi mantentzea, baina aipatu dudan arrisku txiki horrekin: garbi, bai, baina agian pasatzen ari gara, agian gehiegizko presioa ezarri diegu larreei eta ondorioz, hemendik urte gutxira, animaliak kendu ezean, lur-zorurik gabe geldituko gara. Eta, ondorioz, animaliak jatekorik gabe geldituko dira. Lehen aipatu dut: Aralar ez da abeltegik bat edo ustiaketa toki bat, eta zaindu ezean, agian, ustiaketarako ere galdu egin dezakegu. Hori nire kezka da.*

*Beste alde batetik, mantentzen dugu balio kultural hori. Niretzat antzinako langintza hau mantentzea balore handi bat da.*

*Bestalde, baditugu beste bi jarduera ekonomiko: batetik, arkume eta gazta-produkzioa eta, bestetik, behor eta txekorren-haragiari lotutakoa. Dena den, hemen ere, nik neure buruari galdera bat egingo nioke: nik dakidanez, behor haragi gutxi jaten da Euskal Herrian eta esango nuke, hemen ekoizten diren behor gehienak kanpora doazela, eta hori ere aztertzea da. Diru asko jartzen ari gara eta hau ere aztertzea da.*

*Beste bi galdera: ba al du zerikusirik elikadura-burujabetzarekin edo lehen sektorea bultzatzearekin? Nik uste dut ezetz eta hau esaten dudanean, badakit, zenbait herritan baserri ugaritarako bideak garbitu gabe daudela, baserri inguruetakoa larreak zikinak daudela, baserriak husten ari direla etab. Beraz, nire ustez, premia askoz handiagoa du gauza hauei guztiei erantzuna emateak, Aralar mendi-puntan horrelako inbertsioak egiteak baino. Nire iritzia da; beraz, hemen onartuko nuke desadostasunak sortzea.*

*Berriro diot: ez dut esan nahi inbertsiorik egin behar ez denik, baina denok jakin behar dugu zenbat diru inbertitzen den, zenbat diru kostatzen zaigun artzainak bertan edukitzea eta zer jasotzen dugun trukean. Nik askotan diot, eta ez zait iruditzen fikzioa egiten ari naizenik, momentu honetan, eta datuak hor daude: azken 15 urteetan, artzainen kopurua behera joan da, oso behera, eta momentu honetan, diru-laguntzarik gabe, nik esango nuke, artzainik ez zela geldituko Aralarren. Ez dakit hemendik 20 urtera ez ote dugun ezagutuko Diputazioak baso-zainak jartzen dituen bezala, 20 artzain ezarriko dituen, 15.000 bururekin, erabakita larreak mantentzeko kopuru egokia hori dela, eta hori dela irtenbidea. Baina iruditzen zait, pistak eraikitzea irtenbide ero bat dela, itsuki egina.*

*Pistak egiten badira, artzaintza tradizionala desitxuratuko da eta bere balio etnografiko-kulturala galduko luke. Momentu honetan, Aralarko artzainek balio bat dute, balio kultural bat; gure identitatearen parte dira. Euskadiko komunitatean nik uste dut, Aritzagakoa dela*

haran glaziar bakarra, eta erdi-erditik pista bat egitekotan gara. Hori niretzat, pertsonalki, eraso ikaragarria da bestelako irtenbideak daudenean, eta 950m-taraino pistak eta azkeneko bordetaraino 30 minutuko bidea dagoenean oinez.

Beste aldetik, pistak egiten badira, Aralarrek balio paisajistikoa galduko du, izan ere, pistek Aralar alderdik alde zeharkatzen dute, eta honek ekarriko dituen ondorioak. Duela 2 asteburu izan nintzen egin den pista ikusten eta benetan bihotzeko mina ematen du. Ez da ondo egin, izan ere, proiektuan aipatu zuten kendutako belar pusketak, pistak egin ondoren, bide-bazterrak estaltzeko erabiliko zituztela, ingurunea lehenago berreskuratze aldera, eta ez da egin: botata utzi dituzte, lardaskeria hutsa egin dute, makinista joan eta bere kabuz trazadura aldatzea erabaki du, iruditu zaiolako egokiagoa dela; sekulako maldak egin dira eta, ondorioz, ur-jasak daudenean higadura areagotuko da.

Ganbotik gertu, nahiz eta oraindik bertan pistak aurreikusita ez egon, bada tontor bat, Pardarri izenekoa, gizakion aztarnarik ikusten ez dena eta hori oso bitxia da. Baina pistak egiten badira, hortxe edukiko ditugu, 50m beherago. Nik uste dut hor asko galduko dugula.

Eta bukatzeko, laburbilduz: Aralar parke-natural bat da, ez da granja bat, ez da baserri ondoko larrea. Aralar ez da abeltzainena, Aralar denon altxorra da, denok babestu beharrekoa eta artzainek tokia dute Aralarren, hori ez du inork ukatzen; baina pistak egiten badira, geure beldurra da, artzainek ere, epe motz batean, ez dutela tokirik izango. Gainera, gure ustez, ustiaketa ekonomikoak beti egon behar du zaintza eta kontserbazioaren menpe.

Honengatik guztiagatik azterketa hori egin behar da eta azterketa hori, noski, teknikoki egin behar da. Beraz, eta mozioan azaldutakoaren harira, proiektua gelditu behar da eta azterketa sakon bat egin behar da, zintzoki.

Ez dakit lortu dudan zueon begiak ikuspuntutuz aldatzea, baina hala bada, eskatuko nizueke, dagokizuen lekuan kezka hori transmititzea. Nik uste dut, pistak eginda, itsuki pareta baten aurka goazela eta ez diogu inori mesede egiten. Eta ulertzen dut artzain zein ganaduzaleen jarrera, azken finean, euren lana errazteko balioko baitu eta nork egin uko horri, baina ez dugu ahaztu behar Aralar mendia dela, denona eta parke-naturala ere badela. Eskerrik asko."

...Herritarra: "Zuk esandako guztiarekin ados nago, baina ia 60 urtez Aralarren ibili naiz, oso mendizalea izan naiz eta izugarritzko amodioa daukat Aralarrekiko. Oso ondo ezagutzen dut Aralar. Oso arrituta nago Enerio Mankomunitatearekin, izan ere, lehen mankomunitate honek guardak bidaltzen zituen eta ni eurekin Igaratzan topatzen nintzen. Behin baino gehiagotan salda bat ere eman izan nien aterpera sartuta, eta eurekin hitz-solasaldiak izaten nituen. Eurei galdetzen nien: zuek zertara etortzen zarete hona? Eurek ikuskatzera etortzen zirela esaten zidaten. Igaratzan ere badaude beste aterpetxe batzuk, bere garaian eginak, Dorronsoro izeneko batek eraikiak, eta batik bat hari bigilatzerara joaten zirela esaten zidaten.

Hark (Dorronsorok) esaten zuen dirua zela mundu honetako boterea eta halaxe lortu zuen hango aterpetxe horiek guztiak egitea. Ezertarako ez. Baina hark proiektu gehiago ere bazeuzkan, eta gorago ere pistak egin zituen. Beraz, pertsona honek legedia betetzen ote zuen ikuskatzen zuten. Eurek zioten aipatutako guzti hori bota egin beharko zela, ekologikoki komenigarria ez zela argudiatuta.

Beraz, orain zer gertatzen da? Gainera, lehen, Aralarren behiak ez ziren sartzten. Han, behorak, ardiak eta zenbait txerri soilik ibiltzen ziren. Lehen askoz zuhaitz gehiago eta askoz berdeago zegoen.

Joan den urtean, Irumugarrietara joatean, 40 ahuntz baino gehiago topatu nituen.

*Eta beste gauza bat: ganaduzaleak asko ezagutu ditugu eta era guztietakoak. Artzainekin harreman handia izan dut eta eurek esaten zidaten, zenbait ganaduzalek behiak eta behorrek sartzen zituztela giltza izateko eta, ondorioz, euren kotxeekin turismoa egiten ibiltzen zirela. Hori nik ere ikusi dut. Eta gainera, neguan, behorrek hilda ere topatu ditut, izan ere, zenbaiti ez zaie axola.*

*Beraz, gauza asko daude aztertu beharrekoak: gauza bat artzainak dira, baina egun sartzen diren behi kantitate horiek sartzea ez da posible.*

*Beraz, mankomunitatea nola aldatu den agerian jarri nahiko nuke.”*

*...Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): “Nik aipatu nahiko nukeena da, gaia ikusita eta egon diren interbentzioak egonda, Udaltza honek aurrera ez egitea eta bi mozioak bertan behera uztea, eztabaida aberasgarria izan delakoan eta norberak bere kontzientzian pentsatu dezala mozio honen atzean eta erabaki honen atzean, sakoneko posizionamendu bat eman dezakeela Tolosako Udalak. Onartzen dut ahuldadeko posizionamendu batetik hitz egiten dudala, baina pentsatu nahi dut zuek, aldeko bozka eman behar duzuenak, zalantzak izan ditzakezuela momentu honetan eta zentzuzkoa iruditzen zait mozioa bertan behera uzteko eskatzea. Aralar Bizirik Plataformako ordezkariak puntu asko jarri ditu mahai gainean eta, orain, zentzu gehiago bilatzen diot azterketa sakonaren beharrari”.*

*...Alkatea: “Nik kontu pare bat. Fiskaltzaren aurrean helegite bat tarteratu baduzue Fiskaltzak esango du legeaz egin den edo ez, ondo egingo dagoen, ingurugiroarekiko inpaktuarentzat eginiko azterketak nahikoak diren edo ez. Beraz, horrek bidea jarraituko du eta esango digute. Nik, lehenago aipatu bezala, xehetasun teknikoetan ezin dut sartu, ez ditudalako ulertzen. Aralar asko ezagutzen dut. Eman dituzun hainbat iritzi irakurri ditut komunikabideetan, ez zaizkit hain berriak egin.*

*Baina lehen sektoreari ematen zaizkion diru-laguntzen inguruan egin duzun iritzi partikularra aipatu nahiko nuke, izan ere, uste dut, hor erratuta zaudela. Pixkat bat bai, arrazoiak eman didazu lehen sektorearen balioa ez ote den zalantza jartzen ari pisten kontu honekin. Egingo bagenu alderaketa bat, adibidez, zenbat inbertitzen duen Tolosako Udalak Tolosako herritarrekin eta portzentualki konparatuko bagenu landa-eremuko herritarrekin egiten den inbertsioarekin, ikaragarria litzateke alderaketa. Horrelako argumentu ekonomiko baten aurrean, segur aski, zentzugabekeria bat da, baina badauka beste balore bat. Eskatu geniezaieke Aldaba, Bedaio, Monteskué, Santa Luziako herritarrei inguratzeko Tolosako muinera, eta, segur aski, ekonomikoki askozaz zenbaki hobeak aterako lirateke. Egia da bideak garbitu behar direla, eta horretarako ere badaude beste diru-laguntza lerro batzuk. Nik uste dut batak ez duela bestea kentzen. Nik uste dut inbertitutako dirua ondo dagoela eta, are gehiago, esango nuke, argian, ez dela nahikoa izan. Nik dakidan arte eta ikusi dudana arte, hori esan nahiko nizuke. Eta balio etnografikoa edo ekologikoa galduko duenaren inguruan, seguraski, ez da berdina izango pistarekin edo pistarik gabe. Beraz, nik pentsatu nahi dut, teknikariek bilatu dezaketela oreka hori. Baina ez naiz inor iritzi hori aurreratzeko.*

*Ibaiek egin duen proposamen horretan, ez dakit Aralar Bizirik Plataformako ordezkariak erretiratu nahiko lukeen, horrela gertatuko balitz, guk erretiratu egingo genukeen. Bestela bozketara pasako ginateke. Nik bai mantentzen dut lehen komentatu dizuedana: hemen azaldutako iritziak patronatua mahai gainean jartzea puntuz puntu. Nahi baduzu gidoitxo bat egingo dugu aurkeztu dituzun puntuekin”.*

*Alkateak hitza eman dio herritarri.*



...Alkatea: "erretiratuta gelditzen dira beraz bi mozioak".

Lehenik, Idazkariak Aralar Bizirik Plataformak aurkeztu duen mozioa. Honela dio:

*"TOLOSAKO UDALAK ARALARKO GATAZKA KONPONTZERA BIDEAN HARTZEN DUEN ERABAKIA*

**SARRERA**

*Orain 14 bat urte aztoratu gintuen eztabaida kalean jarri digute berriro. Enirio-Aralarko Mankomunitateak, Foru Aldundiak 2015-2019 aldirako egindako kudeaketa plana onartu baitu, besteak beste, Goroskintxu-Saltarri, Enirio-Doniturrieta, Ariñate Igaratzara pista egiteko eta Latosa, Pagabe, Pardeluts eta Zotaletara besoak ateratzeko. 2016an Intzesao-Goroskintxu pista egin du dagoeneko Mankomunitateak, inpaktu larriak eta konponezinak sortuz. 2003an berriz, bai Enirio-Aralarko mankomunitateak zein Foru Aldundiak atzera bota zuten pista proiektua, Aralar Natur Parkea babestearen alde.*

*Gipuzkoako Foru Aldundia da Aralar Natur Parkearen arduradun nagusia, eta bultzatzen dituen pista guzti hauek Aralar Natur Parkea eta Babes Bereziko Eremua babesten duten legediaren aurka doaz. Horrez gain, Aldundiak azken urtean Aralarreko patronatua, eragile ezberdinek osatua, horien artean Tolosako udala bera, ez du deitu eta bildu ere egin urteko aurrekontua eta ekintzak onartzeko, hórrela Aldundiak patronatuari egin beharko ziolarik pista proiektu horren proposamena eta bertan onartu.*

*Aranzadi Zientzia Elkarteak, Aralarri buruz ezagutza zientifiko gehien duen prestigiodun taldeak, natur parkean egitera doazen pista proiektuak sortuko dituen inpaktuak larriak eta atzeraezinak jzango direla adierazi du Batzar Nagusietan. Irizpide horiek ez ditu aintzat hartu nahi Aldundiak, orain 14 urte pista proiektua atzera botaz hartu zituen bezala. Orduan, Legebiltzar osoak onartu zuen pista berriak eraikitzekeo plana guztiz desegokia zela Natur Parkearen helburuak betetzeko. Aranzadik, pista proiektua aurrera eramanez gero, abeltzaintzaren etorkizuna ez lukeela bermatuko eta Aralar Natur Parkean ondorio konponezinak sortuko lituzkeela adierazi zuen.*

*Hortaz, auzi honetan batzuen interesak bakarrik hartu dira kontuan, parkearen izaera arriskuan jarritz eta epe luzera, artzaintza eta abeltzaintzarena ere bai, lurzoruaren higadura areagotuz. Ezin dira ezkutatu pisten eraikuntzak inguru naturalean eragiten dituen kalte eta inpaktuak. Batez ere Aralar bezalako mendietan, natura eta paisaia balio apartak izatearekin batera, oso hauskorak gertatzen baitira, honelako obrek larriki kaltetzen dituztelarik.*

*Horrez gain, auzi honek Aralarko herrietan tentsio jasanezina sortu du eta hori desagerrarazteko eta bizikidetza berreskuratzeko, ezinbestekoa da lehendabizi pista proiektua geldiaraztea, ondoren gaur egungo egoera osotasunean hartuta aztertzea, datuak publiko egitea eta teknikarien laguntzaz eta sektore ezberdinen artean (artzain, mendizale, naturazale, ekologista, ornitólogo,...) Aralarko Natur Parkearen kudeaketa plana berrikustea, beti ere, parkearen arauak onartuz eta legeak betez.*

*Egoera honen aurrean, Aralar Bizirik Plataformak, Tolosako Udaleko Osoko Bilkuran honako hau onartzea proposatzen du:*

MOZIOA:

*Aralarko pisten inguruko gatazka konponbideak*

- 1. Saltarrikoa, zein beste pista proiektu guztiak gelditzea.*
- 2. Foru Aldundiak Aralar Parke Naturaleko gaur egungo egoera osotasunean aztertu eta datuak publikoak egin ditzala, eta natur baliabideak babesteko neurriak hartzen direla ziurtatu. Eta ondoren partaidetza prozesua ireki sektore ezberdinen artean Aralarko Natura-Parkearen kudeaketak etorkizun bideragarria berma dezan.*
- 3. Tolosako Udalak, Aralar Parke Naturaleko patronatuan ordezkari izanda, Aralarren inguruko gai garrantzitsuetan gutxienez, Udal Batzan eztabaidaturiko eta bozkaturiko erabakia eramango duela Patronatoko batzarretara.*

*Foru Aldundiko Ingurumen eta Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendariei akordio hauen berri ematea eta aintzat hartzeko eskatzea.”*

Jarraian, Idazkariak EAJ-PNV udal taldeak aurkeztu duen mozioa irakurri du. Honela dio:

*“Aralargo artzain eta abeltzainen duintasunaren aldeko MOZIOA*

*“Mendiko artzaintza, inguruko arlo sozial, kultural eta ekologikoetan eragina izateaz gain, funtsezkoa da larreak mantentzeko, balio ekologiko handidun ondare naturalak baitira. Horregatik, gaur egun mendi atlantiarrean, Euskal Herria barne, gero eta gehiago ematen ari den artzaintzaren jardueraren murrizketak aldaketa garrantzitsuak dakartza lurzoruko konposizio begetal eta mikrobianoan eta, beraz, galera bat dibertsitate floristikoa eta larrearen kalitate nutritiboan, eta baita CO2-aren isuriaren igoera. Guzti horrek, kate-ondorio ugari izango ditu, arlo sozio-ekonomikoan ere nabaritutako direnak.”*

*Hauxek dira, UPV/EHUko Landareen Biologia eta Ekologia Saileko Arantza Aldezabal eta*

*Iñaki Odriozolak eta NEIKER-Teknialiako Lur Moragues eta Iker Mijangosek osaturiko ikerketa taldeak, hamar urtez eginiko ikerketa lanean, hitzez hitz, ateratako ondorioak.*

*Ikerketa lanean sakonduz gero mendiko artzaintzaren onura ekologikoak eta biodibertsitaterako egindako aportazioa azpimarratzen da behin eta berriro eta hain zuzen horrexegatik, zeharo kezkatuta gaude, azken hilabeteotan Aralarko azpiegiturak direla eta, bizitu dugun egoerarekin.*

*Gipuzkoako gizarteak ezin du onartu, gizartea bere osotasunean aurrera egiteko elkar-lanean dihardugun bitartean, gure lurraldean behin eta berriro estrategikotzat jotzen ditugun artzain eta abeltzainak XIX mendean bezala bizi zitezen.*

*Egungo artzain eta abeltzainek, eta are gehiago, etorkizunean ere artzain eta abeltzainak gure mendietan izan nahi baditugu, ezinbestekoa da gutxieneko azpiegiturak eta baliabideak eskaintzea.*

*Aurrez azaldutako guziagatik, honako MOZIOA aurkezten dugu.*

- 1. Tolosako Udalak Aralar bezelako natur guneak babestu eta kudeatzen dituzten abeltzain denei, egiten duten onura publikoa aitortzen diegu.*
- 2. Ondorioz, artzain eta abeltzainen lan eta bizi baldintzak hobetu asmoz, Aralarko Mankomunitateak onartu eta gauzatutako azpiegitura lanei babesa ematen diegu eta etorkizunean ere, bide beretik jarraitzea eskatzen dugu.*
- 3. Aralarko mendietan bizi eta lan egiten duten abeltzain eta artzainen eskakizunak bereganatuz Enirio-Aralarko mankomunitateak 2016ko abenduaren 20an ospatutako zuzendaritza batzordean onartu zuen Inbertsio Beharren Plana babesten dugu.”*

*Eztabaida ondoren Aralar plataformako kideak aurkeztu duen mozioa erretiratu egin du eta Alkateak ere adierazi du beraiek aurkeztutako erretiratu egiten dutela baina konpromiso bat hartuz: eztabaidan azaldutako iritziak puntuz puntu Aralar Parkearen Patronatuari helaraztea*

**6. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren kontrako udal adierazpena.**

**6. Declaración institucional contra la xenofobia y el racismo.**

Partehartzeak:

*...Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): “Zurrumurruen aurkako sarearen mozioan jasotzen den bezala, martxoaren 21ean ospatzen da Arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako Nazioarteko eguna. Azken batean, edozein arrazakeri mota, diskriminazio mota ezabatu beharreko eguna. Behin baino gehiagoetan, horrelako gaietan ere, aipatu izan dut ospakizun egunak ez zaidala egokiena iruditzen baina gutxienez, behintzat, balio du gogoeta soziala egitea, beharrezkoa delako. Xenofobia eta arrazakeriari dagokionean mozio honek uste dut jada dena esaten duela. Baina badaude modu ezberdin asko diskriminatzeko. Ez da oso zuzena gelditzen*

*esatea bat arrazista dela, baina modu asko daude ezberdina den hori baztertzeko. Baita ere, askoz era disimulatuagoak izan daitezkeenak. Batzuk legerian daude eta erakundeetatik, Nazio Batuetatik eta baita ere Europar Batasunetik atentzioa deitu izan zaio. Hori ondo dago, baina lokalera etorrira eta, gainera, kontutan izan da Tolosa sartuta dagoela ZAS Zurrumurruen Aurkako Sarean, iruditzen zait egin beharreko gogoeta dela, era indibidualean edo lokalean, behintzat nor berak zer egiten duen guzti honen aurrean; zer jarrera hartzen den; zer esparru ematen diogun partehartzerako etorkinei. Egia esan, gai hau prestatzeko bideo batzuk ikusten aritu naiz; berriak ere ikusi ditut, berrogeita hamazazpi herritako jendea omen dago. Beraz, bi aukera dauzkagu eraso bezala hartzea, mehatxu bezala hartzea, edo aberastasun bezala hartzea. Oreka lortzea ez da erreza, baina hortik joan beharko genuke. Hor dagoen zerbait, aberasgarria izan daiteke, gainera hemen eman izan dira, bazkariak eta etxeetara joateko elkarbizitza eta elkarbanatzeko esperientziak. Beraz eta, laburbilduz, guzti honengatik eta jakinda Tolosa dagoela sare honetan, zurrumurruen aurkako sare honetan, hori berri ona izan da eta baita ere iruditzen zait konpromiso bat badaukagula horrelako bazterkeria eta diskriminazio ariketak edo keinuak ekiditeko. Gehienbat ematen badira, salatze orokorrean eta, azken batean, era inklusibo batean etorkin guztiak artatzeko. Azpimarratu nahiko nituzke askotan etika publikoa sustatu behar dela eta, hau da benetan egunero landu eta tarteka martxoaren 21eko aitzakiaz, gogoeta bat egin. Hainbat gauza badaude; martxoak 8 izan dugu aurreko plenoan, ondo dago gogoeta egitea, ona da, izan ere, askotan inertiak eramaten gaitu, eta tarteka gelditzea ondo dator. Gai honekin ere hartu liteke horrelako konpromiso bat egunero landu, egunero jarrera bat eduki eta tarteka horren inguruko gogoeta egin. Bestalde, alderdi politikoan, eta azken batean, erakunde ezberdinen erabilkeria utzi eta kode etikoan azpimarratzea. Ikusi ditugu kanpaina oso itsusiak, gezurtiak, askotan bozka batzuen kontura edo horiek bilatu nahian. Uste dut alderdiek erantzukizuna dugula, erakunde aldetik norberanako konpromisoak hartu behar direla. Beraz, baiezkoa emango diogu.”*

...Alkatea: “Zurrumurruen aurkako sare honetan bagaude. Tolosa badago eta egia da Adierazpenak dena esaten duela, ez dauka beste ezer gehitzeko beharrik. Bai adierazi Kristina Moralesek gai hauetaz arduratzen den teknikaria Tolosaldean, azpimarratu zuena, zer garrantzia duten horrelako adierazpenak une batean eskualdeko udaletxe guztietan onartzea. Batzuetan onartzen baditugu ere oso mekanikoki, egun berezi hauetan horrelako adierazpenak onartzeak gero eta aukera gehiago ematen digutelako esaten diren mezu inportante horiek barneratzeko.”

-----

Idazkariak mozioa irakurri du. Mozioak honela dio:

“Nazio Batuen Batzar Nagusiak martxoaren 21ean ospatzen du Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta estatu-kideei eskatzen die ekintza-planak abiarazi ditzaten, arrazakeria eta apartheida ezabatzeke. UNESCOko

El Secretario procede a la lectura de la siguiente moción:

“La Asamblea General de Naciones Unidas conmemora el 21 de marzo como Día Internacional de la Eliminación de la Discriminación Racial y exige a los Estados miembros que impulsen programas de acción enfocados en la erradicación de la

zuzendari nagusiak 2017an zabalduko mezuak gogorarazten digu arrazakeriak gizabanakoak eta gizartea hondatzen dituen pozoia dela, ezberdintasunak iraunarazten dituela, eta haserrea, amorrua eta indarkeria bultzatzen dituela. Krisi ekonomikoa eta ziurgabetasun soziala ezaugarri duten garaiotan, erraza da "bestea" erruduntzat hartzea, eta arraza-diskriminazioa tentazio arriskutsua bihurtzen da, zeina gorrotoaren artisauek ondo aprobetxatzen dakiten.

Gaur egungo arrazakeria-, arraza-diskriminazio-, xenofobia- eta antzeko tolerantzia-ezeko ereduak NBEko errelatore bereziak txostena egin zuen 2013an Espainiaren inguruan. Bertan, gogor kritikatu zuen arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako legeria, eta baietzi zuen migratzaile, ijito eta errefuxiatuen eskubideak urratzen zirela. Zehazki, adierazi zuen krisi ekonomikoak atzerakada ekarri zuela arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan; besteak beste, ildo horretan lan egiten duten erakundeek laguntza finantzarioaren ezaatik.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Europako Batzordea (ECRI) Espainiara etorri da 2017ko urtarrilean, bosgarren txostena egiteko asmoz. Laugarren txostenean (2011) Nazio Batuetako errelatoreak agertutako antzeko kezkak jaso ziren.

Martxoaren 21ak gogorarazten digu edonolako arraza-diskriminazioa ezabatu beharra dagoela; eta bereziki garrantzitsua gertatzen da, gizarte guztietan oraindik jarraitzen eta irauten duten xenofobia-mota sotilez gain, beste xenofobia-adierazpen kezkagarriak azaleratu direlako, gobernuek, gizarterakundeek, alderdi politikoek eta beste hainbat eragilek sustatuta. Horiek

discriminación racial y el apartheid. El mensaje de la Directora General de UNESCO en 2017 nos recuerda que la discriminación racial es un veneno que menoscaba a las personas y las sociedades, perpetúa las desigualdades y fomenta la ira, el resentimiento y la violencia. En tiempos de crisis económica y de incertidumbre social, es fácil hacer del "otro" un chivo expiatorio, y la discriminación racial es una tentación peligrosa que los artesanos del odio saben aprovechar.

El Relator especial de la ONU sobre las formas contemporáneas de racismo, discriminación racial, xenofobia y formas conexas de intolerancia, en su informe de 2013 sobre el estado español fue muy crítico con la legislación contra el racismo y la xenofobia, y constató la vulneración de derechos de personas migrantes, gitanas y refugiadas. Concretamente señalaba cómo la crisis económica suponía un retroceso en la lucha contra el racismo y la xenofobia, entre otros motivos, por la falta de apoyo financiero a las organizaciones dedicadas a esta labor.

La Comisión Europea contra el Racismo y la Xenofobia (ECRI) del Consejo de Europa, ha visitado en enero de 2017 el estado español con objeto de realizar el 5º informe. En el 4º informe (2011) señalaba similares motivos de preocupación a los del relator de Naciones Unidas.

El 21 de marzo, que recuerda la necesidad de eliminar todo tipo de discriminación racial, cobra especial relevancia porque junto a la existencia y persistencia de formas sutiles de xenofobia presentes en todas las sociedades, emergen otras alarmantes manifestaciones de xenofobia alentadas desde gobiernos,

xenofobia-eredu instituzionalizatuak bihurtu daitezke eta, ondorioz, diskriminazioa ekarri dezakete. Halako jarrerak, behin martxan, oso zailak dira gelditzen. Jakina, Europatik iristen diren oihartzun larrigarri ugariak direla-eta, egoerarik txarrena aurreikusten dugu, eta horixe barneratzen dugu, bai eta Europaren aukera ere.

Mugimendu xenofoboak gizartean zabaldu ohi dira, inpunitate-eremuak zein onespenguneak sortuz. Egoera horiek sendotu eta finkatu egiten dira liderrak proposatzen dituztenenean, gizartean haien parekorik ez dagoela baieztatzen dutelarik. Hala, pentsamolde ideologikoak askatzen dituzte, zeinek, lehenetsun nazionalaren izenean, tartea gordetzen eta indartzen duten biztanleriak duen immigranteen behar materialaren eta etorkinek harrera-gizarteetan jasaten duten gaitzespenaren artean. Bada logika hori -lagungarria eta okerra dena aldi berean- laburtzen duen lema bat: **Needed, but not Wellcome!**

TOLOSAKO UDALA, ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarearen parte izanik, aditzera eman nahi dugu konpromisoa hartu dugula dauden prozedura eta mekanismo guztiak sustatu eta abian jartzeko, xenofobia- eta diskriminazio-ereduak -sotilak eta agerikoak, ala ez hainbeste- sustatu nahi dituzten proposamen politiko eta diskurtsoak ahultzeko. Adierazpen eta diskurtso horiek ez dira gure izenean egingo, ez eta erakundeen izenean ere.

Ikusirik politika xenofoboek zenbateraino egin duten aurrera Europan eta mundu-mailan, berretsi nahi dugu gure konpromisoa; hots, inpunitate-dinamikak galaraztearena baiezeko demokratiko eta

organismos sociales, partidos políticos y otros muchos agentes que pueden terminar convirtiéndose en formas institucionalizadas de xenofobia y consecuente discriminación. Este continuum es muy difícil de parar una vez iniciada su andadura. Desde luego, los muchos ecos preocupantes que nos llegan desde Europa hacen presagiar lo peor, llegando a socavar la misma idea, e incluso posibilidad, de Europa.

Todo movimiento xenófobo tiende a expandirse socialmente creando ámbitos de impunidad y zonas de aquiescencia. Estas realidades suelen intensificarse y tomar plaza cuando sus proponentes son liderazgos que, afirmando basarse en sentires sociales únicamente, dan rienda suelta a corrientes ideológicas que en nombre de la preferencia nacional mantiene y fortalece el divorcio entre la necesidad material de población inmigrante y el rechazo que tales inmigrantes sufren en las sociedades receptoras. Un lema resume esta lógica tan socorrida como desacertada de Needed, but not Wellcome!

El AYUNTAMIENTO DE TOLOSA, como miembro de ZAS! Red Vasca Antirumores tiene el compromiso de impulsar y poner en marcha todos los procedimientos y mecanismos disponibles para debilitar tanto los discursos como las propuestas políticas orientadas al fomento de formas más o menos sutiles o manifiestas de xenofobia y discriminación. No al menos en nuestro nombre, ni desde las instituciones.

Ante el avance de fuerzas políticas xenófobas en el contexto europeo y mundial, reafirmamos nuestro compromiso para impedir las

*irimo baten bidez, ez daitezten gobernura iritsi. Giza eskubideek lehentasuna dute, eta eskuratu ditugun gobernu-moldeek barne hartu behar dituzte; horretarako, beharrezkoa da erakundeek irmoki uko egin diezaietela xenofobiari eta arrazakeriari.*

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sareak ezinbestekotzat jotzen du:

- Arrazakeria eta xenofobia prebenitu eta ezabatzeko politika publikoak nahiz gizarte-estrategiak bultzatzea, ikuspegi deskolonizatzaile batetik eta elkargunea bilatuz.
- Immigranteek egindako ekarpenak azpimarratzea, eta Euskadiko biztanle guztien aukera berdintasuna bermatzea, baita sustapen sozial, ekonomiko eta kulturalerako aukerak indartzea ere.
- Kulturartekotasunaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako jarrerak sustatzen dituzten hedapen- eta sentsibilizazio-ekintza nahiz estrategiak aktibatzea, zurrumurruen aurkako sareak sendotuta eta hezkuntzari arreta berezia eskainita, formalari zein ez-formalari.
- Etika publikoa sustatzea, zeinak herritarrak kontzientziatuko dituen eta edozein arrazakeria- edo xenofobia-aztarna ezabatuko duen.
- Alderdi politiko guztiek kode etikoa bereganatu dezatela gomendatzea, konpromisoa hartu dezaten demagogia eta populismorik ez egiteko immigranteen inguruan; bai eta mekanismoak ezarri ditzatela ere, konpromiso hori betetzen ez dutenak zehatzeko.”

Jarraian, mozioa bozketara jarri eta, aho batez, **onartu da.**

*dinámicas de impunidad mediante una afirmación democrática firme que imposibilite su acceso a los diferentes niveles de gobierno. Los derechos humanos anteceden y deben quedar incorporados en las formas de gobierno de las que nos hemos dotado y ello exige una posición firme de cierre institucional a la xenofobia y al racismo.*

ZAS! Red Vasca Antirumores considera importante:

- Impulsar políticas públicas y estrategias sociales para la prevención y la eliminación del racismo y la xenofobia en todos los ámbitos, desde una mirada descolonizadora e interseccional.
- Subrayar las contribuciones de la inmigración, garantizar la igualdad de oportunidades y la promoción social, económica y cultural de toda la ciudadanía que reside en Euskadi.
- Activar estrategias y acciones de difusión y sensibilización que fomenten la interculturalidad y el antirracismo, fortaleciendo redes antirumores, con una atención especial al ámbito educativo formal y no formal.
- Promover una ética pública que conciencie a la ciudadanía y elimine todo remanente racista o xenófobo.
- Recomendar que los partidos políticos se doten de un código ético por el cual se comprometan a no hacer demagogia ni populismo con la inmigración y que se doten de mecanismos que sancionen a quienes incumplan este compromiso.”

A continuación, sometida a votación, **la**

**moción es aprobada por unanimidad**

**7. Sare, euskal preso , iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko sare herritarrak aurkeztutako mozioa.**

**7. Moción presentada por Sare, red ciudadana a favor de los derechos humanos de las personas presas, exiliadas y deportadas vascas.**

Partehartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE\_EE): *“Gure Giza Eskubidearekiko konpromisoa ezin da ezeztatu, baina guk banandu nahi ditugu, alde batetik, presoen eta preso ez direnen Giza Eskubideen aldeko beharrezkoak diren politikak eta, beste aldetik, agertzen diren kuestio konkretuak; horregatik, bozketa honetan abstenituko naiz.”*
- ... Ibai Iriarte San Vicente (EH Bildu): *Arratsaldeon. EH Bildutik behintzat argi daukagu mozio honen alde agertuko garela. Azken finean, Estatu espainolak duen jarrera oldarkor, kriminalizatzaile eta giza eskubideen aurkakoa berriz ere agerian utzi zuen 104.000 euro hauen lapurreta eginez. Zuzenbide Estatuaren aurkako beste eraso bat izan zen. Argi daukagu Estatua erosoago zegoela konfrontazio egoera batean, gatazkaren erresoluzio egoera batean baino eta horregatik presoek kontra egin zuen dispertsioaren bidez, politika penitentiario krudel guzti horren bidez. Senideen aurka ere egin zuen, dispertsioa tarteko. Baina bere oldarraldi horretan, eskubideen eta giza eskubideen edo Zuzenbide Estatuaren aldarrikapenen alde egiten duten elkarten kontra ere egin du. Kasu honetan, SAREren kontra egin du dirua konfiskatzen. Lehenago HERRIRAREN aurka ere egin zuen eta erasoak etengabeak izan dira.*
- Diru guzti hau, euskal gizarteak emana, argi eta garbi lapurtu du estatu espainiarrak eta, zentzu honetan, gure elkartasun guztia adierazi nahi diogu SAREri eta gure gaitzespen osoa estatuen jarrera bortitz honi. Horregatik babestu egingo dugu mozio hau.*
- ... Alkatea: *SAREk aurkezten duen mozio hau giza eskubideen defentsan kokatzen dugu. Gainera, ez da lehenengo aldia gai honetaz hitz egiten dela Osoko Bilkura honetan. Dagoeneko salbuespen neurriak lekuz kanpo daude. SAREk salbuespen-neurrien bidez urratutako giza eskubideen salaketa egiten du, hori da bere helburua eta izateko zergatia. Era berean, aipatu, Udal honek badaukala preso diren familiei eta Etxerati zuzendutako laguntza-lerro bat eta bide berdinetik, ohiko diru-laguntzen bidez, baiezkoa emango diogu mozioari.*

Jarraian, Alkateak SAREko kide bati hitza eman dio. Partehartzea espedientea jaso da, DVDn.

-----

Idazkariak mozioa irakurri du. Mozioak honela dio:

*“Auzitegi Nazionaleko 2. Zigor Aretoak 103/17 (1-3-2017) Autuan ebatzi du, Sarek jarritako*



*apelazio-helegitea ez onartzea. 104 000€ konfiskatu zituen Guardia Zibilak 2015eko urtarrileko manifestazioaren ondoren. Aretoak, berriz, diru hori bildu zuen erakundea legez kanpoko zela argudiatu du ebazpenean.*

*2015eko urtarrilean presoek eskubideen defentsan Bilbon nazio manifestaldi jendetsua burutu zen, bertan euskal gizarteak pertsona hauen eskubideen errespetua ozen aldarrikatu zituen. Manifestazio horretan, parte hartu zuten gizabanakoek beren borondatez gastuen ordainketarako emaniko dirua espainiako Guardia Zibilak konfiskatua izan zen.*

*Manifestaldia antolatzeke behar izan ziren montai, ekipo, eta bestelako gauza guztiak ordaintzeko ezinbestekoa zen herritarrek emaniko diru kopuru hori. Diru guzti hau, 104,000 € hain zuzen, konfiskatua izatean, ezinezko egin zaio Sareri zor guzti hauei aurre egitea.*

*Ondorioz, 2015. urtean egindako lapurretaren egunetik, SARE zorretan dago hainbat enprekin, eta erabaki honekin, SARE ito nahi dute. Baina argi daukagu SAREk aurrera egin behar duela eta herri honek, konponbiderantz pausoak emateko, presoek eskubideak errespetatzea behar beharrezkoa dela ozen esan nahi du, eta SAREk horretan lagundu nahi du. Giza eskubideen errespetua, oinarritzko pauso bat izan behar delako, eta euskal jendarteraren gehiengo zabal batek horrela sentitzen duelako, SAREk sentsibilizazio guzti horiek elkartzeko eta aktibatzeke lanetan jarraitzeke erabakia eta konbentzimendua dauka.*

*Horregatik, eta egoera ekonomiko zail honi aurre egiteke, elkartasun astea martxan jarri dugu. 2015. urtean egin bezala, orain ere jendarteraren babes eta elkartasuna behar degu. SAREa ehuntzen jarraitu behar dugu, eta horretarako denok sare honen parte sentitu behar gara, eta ahal dugun heinean gure aletxo jarri.*

*Presoen eskubideen defentsan, asko dira landu ditugun eskubide urraketak ezberdinetan, jaso ditugun babes eta konpromisoak. Bereziki urrunketa, larriki gaixoen egoera eta zigorren batuketen aplikazio eza izan dira gure jardun nagusiak, eta eskubide horiek errespetatzeke urruti gaude egun. Horregatik lanean jarraitu behar dugu eta zuen laguntza behar dugu, denon laguntza egoera ekonomiko honetatik atera eta bidean jarraitzeke.*

*Horrela, norbanakoen aletxo eskatzen ari garen bezala, erakunde, udal eta bestelako eragileek laguntza eskatzea ere beharrezkoa da. Kasu honetan, Udalei, herri bakoitzetik manifestaldi horretara antolaturiko autobusetan joandako pertsona bakoitzeko euro bat eskatzen ari da Sare.*

*Tolosaren kasuan, egun horretan 7 autobus irten ziren, guztira 385 lagun.*

*Guzti hau kontutan hartuz, Tolosako udalak ondorengo onartzea eskatzen du Sarek:*

- *Tolosako Udalak pertsona guztien eskubideen aldeko aldarriarekin bat egin eta Sarek lan egiten duen preso, iheslari eta errefuxiatuen eskubideak errespetatzea eskatzen du.*
- *Tolosako udalak bere elkartasuna adierazten dio Sareri eta bera ekonomikoki itotzeke eraso hau gaitzesten du.*
- *Egoera ekonomiko gogor honi irtenbide emateke, egun horretan Bilboko manifestaldira joaniko pertsonen kopurua adina € Sareri diru laguntza moduan ematea onartzen du, kasu honetan 385 €.*

*Mozio honen berri euskal herriko komunikabide desberdinei zabaltzea adosten du.”*

Jarraian, mozioa bozketara jarri eta, EAJ-PNV (9) eta EHBildu (7) zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE(1) alderdiko abstentzio botoarekin, gehiengoz, mozioa, **onartu da**.

**8. Udaberri dantza taldeari eta TEE (Tolosako Ekinbide Etxea) zoriondu, egiten duten lana errekonozitu eta antolatuko dituzten ekitaldi bereziak diruz laguntzeko Eusko Jaurlaritzari eskatzeko mozioa.**

**8. Moción de felicitación y reconocimiento del trabajo que realizan Udaberri dantza taldea y el CIT (Centro de Iniciativas y Turismo) y solicitud al Gobierno Vasco de ayudas económicas para actividades extraordinarias.**

Partehartzeak:

... Cristian Fernandez Susin (EAJ-PNV): *“Zorionak eta urte askotako Udaberri Dantza Taldea eta Tolosako Ekinbide Etxea, mila esker egiten duzuen guztiagatik. Tolosako ondare kulturala zuek gabe imajinatzea ezinezkoa da, horregatik aipatzen diren diru-laguntzak beharrezkoak dira hori mantentzeko eta handitzeko.”*

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Aurkeztu dugun mozioa, Bingen Zupiriak, Kultura Sailburuak, elkarrizketa batean esandakoaren ondotik dator. Izan ere, esan zuen diru batzuk liberatu zirela eta ikusita aurten Udaberri dantza taldeak eta Tolosako Ekinbide Etxeak urteak betetzen dituztela eta ospakizun bereziak antolatu nahi dituztela urtemuga hauek ospatzeko, EHBildutik interesgarria ikusten genuen eskera hau zuzentzea. Alde batetik, Cristianek esan duen bezala, zoriondu. Bai bata eta bai bestea erreferenteak dira Tolosan, pertsona guztiok ezagutzen dugu bai bat eta bai bestea. Udaberri dantza taldetik dozenaka gazte eta ez hain gazte pasa dira. Batzuk besteak baino eskarmentu eta habilidade gehiagoz; korporazioa dantzan jartzeko ardura dute. CIT bera erreferente bat da aipatutako lekuetan. Horregatik iruditzen zitzaigun interesgarria Tolosako udalak, aho batez, eskaera luzatzea ospakizunak ordaindu ahal izateko, horretarako dirulaguntza berezi batzuk zuzentzeko. Argi genuen bi elkarte hauek merezi dutela eta Tolosako udalak, aho batez, Kultur sailari eskaera egitea. Beraz, zorionak eta beste 50 eta 60 urteetan jarrai dezazuela egiten duzuen lana egiten, Tolosak eskertzen du eta eskertzen jarraituko du.”*

... Alkatea. *“Aurtengoa ospakizun urtea izango da. Badakit buru belarri dabiltzala, bai Tolosako Ekinbide Etxea eta bai Udaberri dantza taldea, ospakizun horiek antolatzeko. Gozatzeko aukera izango dugu; legezkoa da eta, horregatik, baiezkoa emango diogu mozioari.”*

-----

Idazkariak mozioa irakurri du. Honela dio:

*“2017 urtean Tolosako bi elkarte garrantzitsuek urteak betetzen dituzte, Udaberri dantza*

*taldeak 60 urte betetzen ditu eta TEE (Tolosako Ekinbide Etxea), CIT moduan ezagunagoak, 50.*

*Bai bata zein besteak urte guzti hauetan zehar makina bat ekitaldi antolatu izan dituzte Tolosan. Batak zein besteak Tolosa bizi eta dinamiko bat izaten lagundu dute.*

*Bata zein besteak, Tolosaren izena munduan zehar barraiatu dute, eta zabaltzen jarraitzen dute, bakoitza berean erreferente bat dira eta.*

*Udaberri dantza taldeak, euskal dantza herriko belaunaldi desberdinetan zabaldu du, euskal kultura eta ondarea belaunaldiz belaunaldi transmititzen. Beraiek dira, besteak beste, San Juan egunean Bordondantzari moduan dantzan irteten direnak, beraiek dantzari txiki eguna antolatzen dutenak, beraiek asteburu desberdin askotan dantza kalera ateratzen dutenak. Beraiek hain zuzen Tolosa, den herri bizia izaten ale garrantzitsu bat jartzen dutenak.*

*Tolosako Ekinbide Etxea, berriz, Tolosa alor desberdinetan erreferente gisa jarri dute munduan zehar, bai txontxongiloen arloan Topic museo eta Titirijai astearengatik, baita musika koral munduan Tolosako Abesbatza lehiaketari esker.*

*Biak hala biak, herriko altxor ditugu eta zentzu horretan Tolosako Udalak adierazpen honen bitartez ondorengoa adierazi nahi du:*

- *Tolosako Udalak Udaberri dantza taldeari eta Tolosako Ekinbide Etxeari aurtengo urte honetan zoriondu eta egin eta egiten duten lan guzti horrengatik bere esker ona adierazi nahi die.*
- *Tolosako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eskatzen dio dirulaguntza bat ematea Tolosako bi elkarte hauei (Udaberri dantza taldea eta Tolosako Ekinbide Etxea). Horrela, bi elkarte hauek urte hau ospatzeko antolaturiko ekitaldi desberdinen gastuak ordaintzen lagunduko luke.*
- *Mozio hau Eusko Jaurlaritzako Kultur sailburu den Bingen Zupiria jaunari, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eta Udaberri eta Tolosako Ekinbide Etxeari jakinaraztea."*

Jarraian, adierazpena bozketara jarri eta, aho batez, **onartu da.**

## 9. Galderak eta eskaerak

## 9. Ruegos y preguntas.

*Atal honetan alkateak hitza hartu du aipamen txiki bat egiteko: "Legealdia hasieratik eta aurretiko urteetan eta baita berriki hasitako urte hauetan ere, gure herriko kaleetan pintadak gero eta gehiago ugaritzen ari dira, kasu batzuetan gainera erreferentzi zuzenak egiten. Udaletxe honetara kexa ugari iristen dira eta dei bat egin nahi nuke jarrera hauek gaizki ulertutako adierazpen askatasunen menpean ezin direlako justifikatu. Herriari garbiketarako gastu bat eragiteaz gain, bizikidetzako garai batean bizi garen honetan, edo behintzat, bizikidetzak lantzen garatzen ari garen garai honetan, jarrera hauek ez dute laguntzen, oztopatzen baizik. Beraz, osoko bilkura aprobetxatu nahi nuen dei hori egiteko."*

Besterik gabe, gaueko hamarrak laurden gutxietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

ALKATEA

Sin más asuntos que tratar, siendo las 21 horas y 45 minutos de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

IDAZKARIA